

BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

3205

EBAZPENA, 2024ko ekainaren 4koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko zuzendariaren 2023ko ekainaren 19ko Ebazpena aldatzen duena. Azken ebazpen horren bidez, dirulaguntzak eman zaizkie kontsumitzaileen elkarteei, funtzionamenduko eta laguntza juridikoko gastuak ordain ditzaten 2023ko ekitaldian.

Lehenengoa.– Kontsumobideko zuzendariaren 2022ko abenduaren 21eko Ebazpenaren bidez argitara ematen da kontsumitzaileen elkarteei 2023ko ekitaldian kontsumitzaileentzako arreta eta laguntza juridikoa emateko gastuak ordaintzera bideratutako dirulaguntzen deialdia.

Bigarrena.– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko zuzendariaren 2023ko ekainaren 19ko Ebazpenaren bidez behean zehazten diren dirulaguntzak eman zitzaizkien kontsumitzaileen elkarte hauei:

Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna – EHKB / Unión de Consumidores de Euskadi – UCE.

IFK: G48247076.

	Guztira.	% 75eko ordainketa 2023an.	% 25eko ordainketa 2024an.
1. lerroa: Kontsumitzaileentzako arreta.	102.000,00 €.	76.500,00 €.	25.500,00 €.
2. lerroa: Laguntza juridikoa.	85.259,73 €.	63.944,80 €.	21.314,93 €.
GUZTIRA.	187.259,73 €.	140.444,80 €.	46.814,93 €.

Euskal Kontsumitzaileen Elkarteak – ACUV/EKA / Asociación de Personas Consumidoras y Usuaris Vasca – ACUV/EKA.

IFK: G48305833.

	Guztira.	% 75eko ordainketa 2023an.	% 25eko ordainketa 2024an.
1. lerroa: Kontsumitzaileentzako arreta.	102.000,00 €.	76.500,00 €.	25.500,00 €.
2. lerroa: Laguntza juridikoa.	85.319,08 €.	63.989,31 €.	21.329,77 €.
GUZTIRA.	187.319,08 €.	140.489,31 €.	46.829,77 €.

2024ko uztailaren 3a, asteazkena

Asociación de Usuarios Financieros de Euskadi – ASUFIN.

IFK: G04937959.

	Guztira.	% 75eko ordainketa 2023an.	% 25eko ordainketa 2024an.
1. lerroa: Kontsumitzaileentzako arreta.	27.276,14 €.	20.457,10 €.	6.819,04 €.
2. lerroa: Laguntza juridikoa.	14.096,20 €.	10.572,15 €.	3.524,05 €.
GUZTIRA.	41.372,34 €.	31.029,25 €.	10.343,09 €.

Asociación de Consumidores y Usuarios en Acción –FACUA Euskadi.

IFK: G95889390.

	Guztira.	% 75eko ordainketa 2023an.	% 25eko ordainketa 2024an.
1. lerroa: Kontsumitzaileentzako arreta.	20.930,64 €.	15.697,98 €.	5.232,66 €.
GUZTIRA.	20.930,64 €.	15.697,98 €.	5.232,66 €.

ACUBI, Asociación de Consumidores y Usuarios del Bidasoa.

IFK: G20172045.

	Guztira.	% 75eko ordainketa 2023an.	% 25eko ordainketa 2024an.
1. lerroa: Kontsumitzaileentzako arreta.	15.000,00 €.	11.250,00 €.	3.750,00 €.
2. lerroa: Laguntza juridikoa.	278,21 €.	208,66 €.	69,55 €.
GUZTIRA.	15.278,21 €.	11.458,66 €.	3.819,55 €.

Hirugarrena.– 2022ko abenduaren 21eko Ebazpenak, 15. artikuluan, ezartzen duenez, dirulaguntzaren % 75a aldeko ebazpena dagoen unean ordainduko da eta gainerako % 25a gastuak justifikatu ostean.

Laugarrena.– Erakunde onuradunek eman zaien dirulaguntzaren deialdiaren ebazpenean eskatutako edukiaren justifikazioa aurkeztu ondoren, desbideratze hauek hauteman dira justifikatutako zenbatekoaren eta dirulaguntza kalkulatzeko onartutako aurrekontuaren artean:

Asociación de Usuarios Financieros de Euskadi – ASUFIN.

	Onartutako aurrekontua.	Justifikazioa.	Desbideratzea.
1. lerroa: Kontsumitzaileentzako arreta.	44.025,45 €.	25.889,41 €.	% 41,19.
2. lerroa: Laguntza juridikoa.	19.000,00 €.	8.693,78 €.	% 54,24.

2024ko uztailearen 3a, asteazkena

2022ko abenduaren 21eko Ebazpenak, 16. artikuluan, ezartzen duenez, gastuen justifikazioan % 25etik gorako desbideratzea gertatzen bada, dirulaguntzarako eskubidea galduko da, laguntza ekonomikoa emateko arrazoi izan ziren helburu guztiak bete direla justifikatzen denean izan ezik. Kasu horretan, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa gutxituko da.

Bosgarrena.– Egiaztatu da Asociación de Usuarios Financieros de Euskadi – ASUFIN izeneko elkarteak bete dituela dirulaguntza emateko ezarri zituen helburuak.

Aipatutako lege-aginduak eta oro har eta bereziki aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko zuzendariak honako hau

XEDATZEN DU:

1.– 2023ko ekainaren 19ko Ebazpena aldatzea, Asociación de Usuarios Financieros de Euskadi – ASUFIN izeneko elkarteari emandako dirulaguntzari dagokionez. Aldaketak egingo dira kontzeptu eta zenbateko hauetan:

Asociación de Usuarios Financieros de Euskadi – ASUFIN.

	Dirulaguntza.
1. lerroa: Kontsumitzaileentzako arreta.	16.039,89 €.
2. lerroa: Laguntza juridikoa.	6.449,96 €.
GUZTIRA.	22.489,85 €.

2.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari; beraz, horren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 4a.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko zuzendaria ordezkatzuz (Agindua, 2023ko azaroaren 9koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena).

Turismo eta Merkataritzako sailburuordea,
JESÚS MARÍA GARCÍA DE COS.